



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 25a

101. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Kode Zibila aldatzeko lege proiektu bat susta dezan, animaliei buruzko manu guztiak berridazteko. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualeko gainontzeko gobernuei proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazienteei. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, enpresentzako laguntza ekonomikoak eta onura fiskalak baldintzatuko dituen. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da despopulazioaren aurkako eta landa garapena aldezteko foru lege proiektu bat aurkez dezan. Miguel Bujanda Cirauqui aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan Egaren adarrean Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzearen herrietan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue 2021 Plan Globala prestatzeko eta antolatzeko egin beharreko jarduketak abiaraz ditzan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren osteko agertokian. Mozioa erretiratzea (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea ABEN Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean. Mozioa erretiratzea (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan. Mozioa erretiratzea (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu beharrezkoa dela kode zibila eta zigor kodea aldatzea, animalien babesa hobetzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatuen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, musikaren sektorea suspertzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (24. or.).
- Galdera, 1977ko Amnistia Legeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, “Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa” Plangintza Mankomunitateari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, musika eskola eta kontserbatorioetarako kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (26. or.).
- Galdera, auzokideen erkidego-biltzarrak egiteko murrizketei edo haiek eteteari buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Moriako sutearen ostean Lesbosko errefuxiatuak hartzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (29. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak (30. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. 2020ko urriaren 30eko 12:00ak arte luzatzea Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezte-

ko epea. Foru Lege proiektua 2019 abenduaren 3ko 49. NPAOn argitaratu zen. (10-19/LEY-00017).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. 2020ko urriaren 30eko 12:00ak arte luzatzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duen Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea. Foru Lege proiektua 2020 ekainaren 25eko 72. NPAOn argitaratu zen (10-20/LEY-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2020ko irailaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko ekainaren 9ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/PRO-00007).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2020ko urriaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Kode Zibila aldatzeko lege proiektu bat susta dezan, animaliei buruzko manu guztiak berridazteko.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Kode Zibila aldatzeko lege proiektu bat susta dezan, animaliei buruzko manu guztiak berridazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumenerako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

MOC-00094

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken hilabeteotan, zoritxarrez, pertsona batzuek (beste) animalia batzuen aurka izandako jokabide nazkagarri eta arbuigarri batzuen berri izan dugu prentsaren bidez. Zehazki, Altsasuko nabe batean orain dela gutxi gertatutakoaren gisako kasuez ari gara, non polizia 11 ardi aurkitu baitzituen hilik, arraza vietnamdarreko zerri elikatu gabe baten eta zakur zeharo abandonatu baten ondoan.

Goizuetan, berriz, gizon batek betizu bat (galzoriko espeziea) hil zuen, enbarazu egiten ziola eta besterik gabe. Berrikiago, eta hemendik hurbill, Uharteko udal-mugartean, katu bat aurkitu zuten indarkeria-zeinu nabarmenekin; zehazki, burua moztuta aurkitu zuten, eta hori izan bide zen heriotzaren arrazoia.

Jende gehienak animaliekiko jokabide errespetuzkoa eta amultsua izan ohi duen arren, oraindik ere ia egunero ikusten ditugu animaliekiko tratu txarren kasuak. Gisa horretako gertakari arbuigarri eta immoralek, jakina, gaitzespen sozial handia eragiten dute.

Halere, gehiegi izaten jarraitzen dute gehiegi-ikusten ditugun kasuak, eta gehiegitan, orobat, tratu txar krudel eta gizagabe baten ostean, egileei epai barregarri bat ezartzea, abusu horren larritasunetik oso urrun.

Gure erkidegoan oihartzun handia izan dute Olivieren kasuak –untxari-eme nahastekatua, zeinari perdigoikada bat jo zioten aurpegian–, Libertyren kasuak –espainiar artzakar emea, harrek hartua–, Castejongo edukiontzari batean erretako txakurarenak edo Tuteran gertatutako muturrekoenak, non 16 zakur abandonatu baitzitezten beren karioletan. Gorpuak iaz aurkitu zituzten, urte amaieran. Kasu horiek guztiak oso denbora gutxian gertatu dira.

Elkarteek nahiz partikularrek egindako salaketa gero eta ugariagoek agerian uzten dute, beste behin ere, sentiberatasun soziala legegilearen aurretik doala.

Kode Zibilean eta beste arau batzuetan, animaliak gauza modura hartzen dira oraindik ere, eta ez sentitzen duten izaki modura; gizarteak, aldiz, argi dauka arestian azaldutako kasuen gisa-koetan tratu txarrak eta torturak pairatu zituzten animaliek beldurra eta oinazea sentitu zituztela hil

arte. Horregatik, hain zuzen ere, herritar askok eskatzen dute koherentea dena: legedi indarduna berrius dadin, animaliak sentitzen duten izaki bizidunak direla onartzeko, eta lagun egiteko animaliak, gainera, animalia-mota berezi bat direla, gizakiarekiko duten afektuzko lotura bereziagatik, izaki horiei zor zaien babesa eta begirunea eman dakien, gaurko gizartearen ikusmoldearekin bat, zeina orain dela urte askokotik oso urruti baitago.

Animaliei ematen diegun tratuak gure gizatasunaren neurria ematen du, gizarte gisa zenbateraino gauden zibilizatuta eta aurreratuta. Animaliek sufrimendurik, umiliaziorik eta esplotaziorik gabeko bizitza merezi dute. Horretarako, haien eskubideen defentsan aurrerabidea egiteari eman behar zaio lehentasuna. Ordezkaritza politikoa garen aldetik, gure betebeharra da ordezkatzen dugun jendeari entzutea eta eskatzen diguna bultzatzea, eta egungo gizarteak, jakina, gurean bizi diren animalien bizitzarekiko sentibera eta enpatikoa izan nahi du. Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 13. artikulua jada ezartzen duenez, Europar Batasunak eta Europar Batasuneko estatuek oso gogoan izanzen dituzte animalien ongizatearen arloko betekizunak, sentitzen duten izaki diren aldetik. Indarkeriak indarkeria dakar soilik; horregatik, arestian azaldutako gertakariak mehatxu bat dira gura gizartearentzat, zeinak gero eta zibikoagoa, sentiberagoa eta inguratzeko gaituen bizitzarekiko adeitsuagoa izan nahi baitu. Horregatik beragatik, inoiz ez litzateke onartu beharko izaki bizidun bat torturatzea bezalako jokabiderik, giza-legearen aurkakoa izateagatik.

Animalia horiek halako jende biolento eta moralgabearen esku pairatutako heriotza ez da gertatu den lehendabizikoa izan, eta, zoritxarrez, ez da azkena ere izan, non eta ez den sakoneko arazoa konpontzen; hortaz, komeni da Zigor Kodearen 337. artikulua xede pedagogiko batez aldatzea, egungo gizartearen sentimena jasotzeko.

Erabaki proposamena:

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Kode Zibila aldatzeko lege proiektu bat susta dezan, animaliei buruzko manu guztiak berridazteko, halako moduan non artikuluetan behar bezala jasoko baita animaliak sentitzen duten izaki bizidunak direla, eta lagun egiteko animaliak, gainera, animalia-mota berezi bat direla, gizakiarekiko duten afektuzko lotura bereziagatik, eta kontsiderazio horren arabera babesa eta tratamendu juridiko egokia emanen baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 605. artikulua aldatzea susta dezan, lagun egiteko animalien enbargaezintasuna jasotzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Hipoteka Legearen 111. artikulua aldatzea susta dezan, animalia horiek ere karga horretatik salbuesteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Zigor Kodearen 337. artikulua aldatzea susta dezan, artikulua horretan jasotzen diren delitu-tipoetan sartzen diren animalien definizioa hobetzeko eta tipo objektiboa berrikusteko, jokabide zigorgarriak zabalduz eta aurreikusitako zigorrak handituz.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrek animalien aurkako tratu-txarrak direla-eta kontzientziatzeko kanpaina bat egin dezan foru erkidegoko nahiz estatuko gainontzeko erakundeekin koordinatuta, zeinetan halaber egiten baitira informazio-hitzaldiak hezkuntza-mailan, ahal den herritar gehienganaino heltzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernu- nuei proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrat- egikoaren garapenean.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernu-
nuei proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrat-
egikoaren garapenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kidea izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ABEN (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa) Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrat-
egikoaren garapenean ardatz berriak ezartzearen komenigarritasunari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetarako Batzordean eztabaidatzeko

Euroeskualdeek benetako zentzua hartzen dute lankidetzan oinarritutako gizarte baten esparru gisa, bertan finkatutako biztanleentzako lurralde orekatu gisa. Hori da, hain zuzen ere, landa-

eremuetako despopulazioa, egin beharreko erronketako bat, eta gainerako helburuei zentzua emanen diena. Lurralde-integrazioa euroeskualdeen printzipio nagusia da.

Helburua da biztanleen onura lortzea, haien beharrei erantzunen dieten proiektuak garatzearen bitartez, lankidetzaren printzipioan oinarrituta. Euroeskualdeek Europar Batasuna sendotzen lagundu behar dute, eta aldi berean hura honako alderdi hauetan indartu behar dute: iraunkortasuna eta inklusioa, hazkunde adimenduna, berrikuntza, azpiegiturak, enplegua eta herritarren ongizatea. Horretarako, Europa solidario, bateratu eta berritzaile bat eratzen lagundu behar dute, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bermatuko duena. Europako bokazioa indartzeko aukera paregabea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ABEN Euroeskualdeko gainerako gobernu-
nuei proposa diezaien bi ardatz berri sartzea ABEN Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrat-
egikoaren garapenean:

1. Jarduera-ildoei buruzko ardatz bat sartzea, emakumeek hiru eskualdeetan duten egoera berezitik abiatuta, Euroeskualderako lortu nahi den berdintasunezko eremu komunari forma emateko.

2. Euroeskualdeko landa-eremuetan despopulazioa geldiarazteko ekimen eta estrat-
egiei buruzko ardatz bat sartzea, arazo komun handi baterako politika komunak ezartzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan Egaren adarrean Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzeari dagozkion herrietan.

Ega ibaiak urteak daramatza akidura-zantzuak adierazten klima-aldaketagatik, baina batez ere iturburuetatik zuzenean egiten diren ur-erazketengatik, edo Lokizko akuiferoako putzuetatik egindakoengatik, Estellerriko herri asko hornitzeko. Jakina, ez dadila zalantzarik gera: ez gaude erazketa horien aurka, baina estrategia alda dadin nahi dugu, ekonomiaren eta ekologiaren ikuspuntutik beste alternatiba jasangarriagoak bila daitezen eta, aldi berean, kontsumo jasangarriagoak lortzeko ahalegina egin dadin.

Uraren ziklo integralaren 2019ko maiatzaren 8ko plan zuzendariak honako hau dio:

“Ega ibaiari dagokionez, etorkizuneko kontsumo-balioespenak zuzendu dira, industria-zuzki-

durak sartu baitira, eta aurreratu egin da denboran Nafarroako Ubidearekiko konexioa, zeina 2024tik 2027ra bitarte eginen baita, halako moduan non Lokizko akuiferoako erazketa murriztuko baita urtean 3,81 hm³-ra eta Antzingo putzuko abandonatuko baita. Estellerria hornitzen duten Ebroko putzu alubialei dagokienez, beren erabilera osatuko duten ustiapen-planak egin beharra ezartzen da, kalitate txikiagoko urak behar dituzten erabilerak hornitzeko, hartara ekidinen baita Lokizen gaineko presioa handiagoa izatea eta bermatuko baita erre-serba modura erabili ahal izatea lehorte-kasuetan”.

Orduan jardunean zegoen Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoari 2019ko uztailaren 5ean igorritako txostenak kontraesan ugari ditu eta, gainera, informazioa ebasten du, zeren eta ez baitu plan zuzendari hori inon ere ez eransten ez informatzen, baina bai jasotzen du Jurramendiko Mankomunitatearen hegoaldea indartzea.

Esan bezala, Ega ibaia arrisku ekologikoan dago, eta akuiferoaren gehiegizko erabilera eta klima-aldaketa aintzat hartuta urgentea da neurriak hartzea Ega ibaiaren erregulazioari eta ingurumen-jasangarritasunari begira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal den guztia aitzineratu dezan Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan zuzendariaren ezarpena adierazitako eremuan, aurrekontua ezarriz eta exekuzioarekin batera Nafarroako Ubidearen Ega ibaiko adarra handituz, Jurramendiko Mankomunitatearen balizko obretan administrazioen ahaleginak bikoiztu gabe; Nafarroako Gobernua orobat premiatzen du Mendazako putzutik ubidea jada iristen den herrietan azpiegiturarik egin ez dezan; halatan, ahaleginak ez bikoiztean kostuak aurreztuko dira eta Ega ibaiaren jasangarritasun ekologikoari mesede eginen zaio, eta konponbide bat emanen zaie udalek, elkarrekin, enpresek eta abarrek ildo horretan egindako erreibindikazioei, non eta biztanleak galtzeko arrisku handia dagoen eremu batean: Ega ibaiaren goi-ibarra eta bide erdia, zeinek eremuaren biziraupenerako ezinbestekotzat jotzen baitute ibaiak bizirik irautea.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, interpelaziotik eratorritako honako mozio hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroa berdea izanen da, edo ez da izanen.

Europar Batasuna, Espainia eta, nola ez, Nafarroa, abiatu egin dira eraldaketaren bidean zehar, isuri kutsagarrien kontrolatik hasita. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak gure artean gelditzeko etorri dira.

Eraikuntzak baliabide naturalak irensten ditu, eta Europar Batasunak, jada, bere politiketan lehentasuna eman die ingurumen arloko baliabide baliotsu horiei.

Europako Itun Berdeak, zeinaren kide baikara, postulatu argiak ditu. Aipatu itunean jasotako efizientzia energetikoa eta etxebizitzaren eskurgarritasuna direla-eta, beharrezkoa da eraikin publiko eta pribatuen “zaharberritze olatu” bati ekitea, zeinak ahalbidetuko baitigu faktura energetikoa murriztea eta pobrezia energetikoa leuntzea. Horrek guztiak eskatzen du zorrotz betetzea erai-
kinei buruzko legedi energetikoa eta etorkizunean eraikuntza-produktuei buruzko erregelamendua

berrikustea. Eraikin berri eta berrituen diseinu-fase guztiak betetzea, halako moduz non ekonomia zirkularraren beharrezanegi egokituko zaizkien, digitalizazioa bultzatuko duten eta higiezinaren parkea klima-aldaketari egokituko zaizkion.

COVID-19aren pandemiak osasun, gizarte eta ekonomia arloko krisi sakon bat sorrarazi du munduan, eta Europar Batasunean egiturazko aldaketaren prozesua azkartzen ari da.

Joan den uztailan Europar Kontseiluak “Next Generation EU” (NGEU) suspertze programa onetsi zuen. Helburua du sektore publiko eta pribatuek bultzatzea europar ekonomien eraldaketa, bi norabidetan: trantsizio ekologikoa eta digitalizazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak “Next Generation EU” horrek gure erkidegoan izan dezakeen inpaktuari buruz egindako txostenean proposatzen du eraikuntzaren sektorea berritzea, Nafarroan funtsezko inpaktua izan dezaketen ekintzetako bat delako.

Nafarroa Suspertu 2020-2023 planak bere egiten du Garapen Jasangarriko 2030 Agenda. Aipatu agendan herrialde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute neurri ausart eta eraldatzaileak hartzeko, mundua jasangarritasunera eta erresilientziara birbideratze aldera. Halaber, bere egiten du “Next Generation EU” Europako Berreskuratze Plana.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hartu beharreko neurriak har ditzan eraikuntza jasangarriaren arloko lidergoa ez galtzeko eta kontsumorik ia gabeko eraikinak ezartzeko, “energia positiboko” eraikinak ezarri eta lehentasuna zaharberritzeari emanaz, eraikuntzaren gainetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, eraikuntzaren sektorea industrializatzeko oinarriak ezar ditzan, inplikaturako eragile eta erakunde guztien parte hartzearekin, aukera bat baita ingurumenarekiko errespetuarekin eta efizientzia handiagoarekin

eraikitze eta kalitate handiagoko enpleguak sortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko plan bat taxutu dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian.

Nafarroak azken urteotan protagonismo argia hartu du nazioko kultur esparruan, sektoreko gure

artistek, sortzaileek eta profesionalak egindako lan txukun eta onari esker. Lorpen eta aitorten horiek, zeinak kritikaren eta ikusleen arreta gero eta handiagoak berresten baititu, zeharo eten ziren COVID-19aren krisiaren erruz. Egoera horrek konplikatatu egin du kultur proposamen askoren biziraupena, murriztu egin behar izan baitute, zenbaitetan zeharo murriztu ere, beren jarduna, eta ataka gaizto batean ikusi baitute beren diru-sarreraren iturri nagusia.

Halaber, artisten, sortzaileen nahiz kultur sustatzaileen etorkizuna zalantzazkoa da, ikusentzuleen gehieneko kopurua mugatu delako eta kultur programak bertan behera geratu direlako, babes publiko edota pribatua izanagatik, gure herrian bizi dugun pandemiaren ondorioz, eta ematen du epe ertainera berdin jarraituko dugula. Horiek horrela, martxoaz geroztik izandako jarduera galerari gehitzen zaio ikuspegi kezkarri bat, etorkizun hurbilari begira.

Gauzak horrela, programazioa *streaming* bidez eskaintzea nolabaiteko konponbidea izan daiteke proposamenak ezagutarazteko, baina horrek ez du beti balio egindako inbertsioa ezaltzeko eta ez da iristen zuzeneko ikuskizunen interesea eta arreta bera lortzera.

Horiek horrela, Kultura eta Kirol eta Departamentuak, kultur ekitaldi horietako askoren bultzatzailea eta parte-hartzailea denez, eremuak, bidegarritasun baldintzak eta sinergiak ahalbidetu beharko lituzke izaera publiko zein pribatuko entitateen artean, bizirauteko hainbeste ahalegintzen ari den kultur arloko enplegua eta jarduera bermatzeko aldera.

Azkenik, ikus-entzuleen gehieneko kopurua mugatu eta murriztu den honetan garai bateko espazioak ataka gaiztoan daudela ikusita, udalen eta Nafarroako Gobernuaren espazio publikoak izan beharko lirateke ohiko lokaletan eman ezin den kultur programazioaren osagarri edota ordeko, ohiko lokal horiek izan baitira herri askotako kultur eta gizarte jardueraren dinamizatzaileak. Ez bakarrik Nafarroako Foru Komunitateko hiriburuari begira, baizik eta udalerrri txikiei begira ere, inoiz baino beharrezkoa zaielako kulturaren eta aisiaren jarduera, azken hilabeteotan herrietako jaiak eta ikuskizun txikiak bertan behera gelditu ondoren.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Ikuskizunen eta ekitaldien sektorea da COVID-19aren pandemiak gehien kaltetu dituenetako bat, jarduera bertan behera utzi behar izateagatik are alarma egoera deklaratu baino lehenago ere. Gauzak horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du, bereziki kaltetutako eta lehentasuneko sektoretzat jo dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du artistentzako, sustatzaileentzako eta sortzaileentzako instalazio eta espazio publikoen plan bat bultzatzea dezan toki enti-

tateekin batera, espazio-murrizketa dela-eta jarduera bere ohiko espazioan egiterik ez dagoenean erabili ahal izan daitezen espazio horiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari Kultura eta Kirol Departamentuari premiazten du, ekitaldietan bultzatzaile edo parte-hartzaile denean, kultur ekitaldien sustatzaileei dei egin diezaien Nafarroako Foru Komunitateko sektoreko artista, sortzaile, teknikari eta langileen parte-hartzea kontuan har dezaten, gure erkidegoan enplegua mantenduko dela bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du, sektorerako zuzeneko laguntzak bultzatzea dezan, bai eta tresna fiskalak ere, kontuan hartuko dutenak kultur jardueraren aldizkakotasuna langileekiko eta enpresekiko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du, kultur kontsumorako bonuen eskaintza bat taxutu dezan urgentziaz eta datozen sei hilabeteetan txartel turistiko kultural bat sor dezan, Foru Komunitateko kulturako, ondareko eta turismoko eskaintza sustatu eta edateko elementu gisa.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiazten da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazientei.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiazten baita

osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazientei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Osasun Departamentua premia-tzen da osasun laguntza egokia eman diezaien COVID-19aren osteko patologia duten pazienteei.

SARS-COV-2 koronabirusaren infekzioa ez da soilik sortzen ari patologia akutu bat, ZIUko ospitaleratzeak eragiten dituena, eta hilkortasuna. Egun, patologia ugari ari dira objektibatzen, koronabirusaren infekzioaren ondoren sortutako komorbiditateak direnak. Pazienteen % 10era irits daiteke sekuelak izan ditzaketenen kopurua. COVID-19aren osteko gaixotasuna deritzo horri. Espainian, 16.000 pazienteri onartu zaie gaixotasun hori.

COVID-19aren osteko patologia duten pazien-teak iraupen luzeko konplikazioak –6 hilabetetik gorakoak– pairatzen ari dira: arnasketari, bihoz-zari, digestio-aparatuari, azalari eragiten dioten

konplikazioak, sintoma orokorrak, neurologikoak... Paziente horien pluripatologiari erreparatuta, beharrezkoa da osasun-sistemak horiei kalitatez-ko eta diziplina anitzeko asistentzia ematea, oina-rrizko osasun laguntzaren eta laguntza espeziali-zatuaren artean koordinatua.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki propo-samen hau aurkezten dugu:

1.- Patologia berri hori –COVID-19aren osteko gaixotasuna– iraupen luzeko gaixotasun gisa aitortzea.

2.- Kalitatezko osasun laguntza ematea, oina-rrizko osasun laguntzarekin koordinatutako dizipli-na anitzeko kontsulten bidez.

3.- Patologia berri horretan ikertzeko inberti-tzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeina-ren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea ezta-baidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ere-muan eremuko errealitateari erantzunen dion eskola-garraio duin eta seguru baterako politikari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka-tzeko.

Argi dago hasi berri den ikasturtearen antola-mendua konplexua izan dela eta izaten ari dela, pandemiak, hartutako neurri bereziak eta beha-rrezkoak izanen diren baliabide gehigarriak baldintzatuta.

Eskola-garraioa da mahai gainean jartzen ari diren alderdi kritikoetako bat, zerbitzua baliatzen duten ikasle guztiei segurtasun-baldintzetan ziur-tatu behar baitzaie baliagarritasuna, are gehiago oraingoa bezalako egoera batean. Mozio honetan bi adibide argi jarri nahi ditugu:

Lehenengoa, ikasturtea hasteko astebeteren faltan, Hezkuntza Departamentuak udalei eta familiei helarazi zien Garraldako HLHIP-DBHia erreferentzia-zentrotzat duten haurrentzako eskola-garraioaren proposamena. Proposamen horretan Abaurregaineko ikasleek orain arte izan duten taxi-zerbitzua kendu eta Garaioa, Hiriberri eta Aribeko ikasleak garraiatzen dituen mikrobusean sartu ziren. Taxia kentzea beste kezka bat izan zen familientzat; izan ere, ibilbidea luzatu egiten da eta arriskua areagotu egiten da Hiriberrin sartu behar delako, zeina iristeko zaila baita bereziki neguan, bertako klimagatik eta orografiagatik. Hezkuntza Departamentuak azken egunotan ziurtatu du taxia mantendu egingen dela ikasturte honetan, baina hurrengo ikasturteei begira taxi zerbitzua desagertu egingen dela.

Bestalde, behin Oroz-Beteluko haurrei eskola-garraioko zerbitzua baimendu zaienean, Orbaizetara joan eta gero Garraldara itzultzeraren behartuko lituzkeen linean sartu dira. Horrela, ordubete inguruko ibilbidea egin beharko lukete, inguruko klima eta ezaugarri geografikoak kontuan hartuta, eta horrek arrisku handiagoa ekarriko lieke adingabeiei.

Aurreko legealdian, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Ekialdeko Pirinioetako Ibarren Egoera Sozioekonomikoari buruzko Ponenziaren txostena. Txosten horretan, hainbat neurri jasotzen dira bailara horietako biztanleentzat oinarritzko zerbitzu publikoak, hala nola hezkuntza, irisgarriago egiten laguntzeko. Gure ustez, irizpide ekonomizisten gaineratik, herritarren bizi-kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea funtsezko bi alderdi dira despopulazio arazo larria duen eremu batean finkatzeko. Nafarroako Gobernuak berriki sustatutako jardunaldiek helburu horiek azpimarratu zituzten, eta Pirinioetatik bertatik hainbat plataforma antolatu dira, ildo horretan lan handia egiten ari direnak.

Bigarrenik, Orkoienera doan eskola-autobusaren linea bat kendu da, eta horrek antolakuntzako arazo larri bat sortu du, Orkoiengo San Miguel HLHIPra eta Auzalar IPra doazen ikasleek autobusa partekatu behar baitute. Aurreko bi ikasturteetan legez, hasiera batez sei ibilgailu paratu ziren herriko eskola-garraioa egiteko, eta onartuta zegoen bi ikastetxeek barne-kudeaketa egitea, autobusak ikastetxeen arabera berezituta. Linea bat kentzeko erabakiaren ondoren, aldatu egin da ikastetxeek ikasleen sartu-irtenei begira aurreikusitako antolamendua, eta ikastetxe bateko ikasleek 45 minutuz partekatu behar dute autobusaren espazioa beste ikastetxeko ikasleekin; hori dela eta, kontaktu eta kutsatze gurutzatuak gerta daitezke haien artean, eta zailtasunak gerta litezke COVID-19an gerta litezkeen positiboan eta konfinamenduen kasuan.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei, irizpide ekonomizistak eta murrizketak alde batera utzita eta zerbitzuari behar adina baliabide esleitzu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ekialdeko Pirinioetako ikasleak ikastetxeetara joan ahal izatea ahalbidetu dezan; zehazki, Abaurregainako ikasleentzako traktore-taxiaren jarraipena eta halako beste bat jartzea Oroz-Beteluko ikasleei, Garraldako eskolaraino arazoizko iraupena izan den ibilbidea bermatzeko eta arriskuak gutxitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Orkoiengo eskola-garraioa berrantola dezan, kendutako linea berri jarrita, ikastetxe bakoitzak garraioa behar bezala antolatzea bermatzeko eta ikastetxe ezberdinetako ikasleen arteko alferreko kontaktuak ekiditeko, ikastetxeetako kontingentzia planekin bat.

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, enpresentzako laguntza ekonomikoak eta onura fiskalak baldintzatuko dituen.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat aurkez dezan, enpresentzako laguntza ekonomikoak eta onura fiskalak baldintzatuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozietako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Pandemiak, besteak beste, Nafarroan enplegua suntsitzea eta okupazioa jaistearen eragin du, gure erkidegoko langile askoren lan-baldintzak okertzeaz gainera.

Enplegu-galerak edo lan-prekarizazioak gehien kaltetutako sektoreak egoiliar atzerritarrek, gazteak eta emakumeak izan dira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak garatutako jarduerari buruz informatze aldera Eskubide Sozietako kontseilariak Parlamentuan irailaren 15ean egindako agerraldian adierazi zuten.

Egoera honek gizartearen, ekonomiaren nahiz lanaren arloetan neurriak hartzea eskatzen du; esaterako, Estatuko gobernuak lan erreforma indargabetzea, gure herriko langileen lan eskubiak leheneratzeko eta blindatzeko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak funtsezko eginkizuna izan dezake eta izan behar du, bermatzerakoan berdintasun eta kalitate baldintzetan lortzen dela enplegua, are gehiago hau bezalako

egoera sozioekonomiko delikatu batean, enpresen eta langileen arteko bitartekaritza eginez kontratazioaren alorrean.

Oso-oso gutxi dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez egun egiten diren kontratuak, eta gure ustez funtsezkoa da egoera hori lehengoratztea.

Bizikidetzako eta berdintasuneko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako 2019-2023 programa-akordioak honako hauek egitera konprometitzen du Nafarroako Gobernua:

«Nafarroako Enplegu Zerbitzuari beharrezkoak diren baliabideak ematea lan-merkatuko bitartekaritza areagotzeko.

Genero-arrakalen aurka borrokatzeko helburua jasotzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan-merkatuko bitartekaritza egitean. Enpresentzako pizgarriak sustatzea, genero-oreka lortzea aldezteko, banaketa-irizpide gisa, lanaren sexu-banaketari dagokionez.

Legegintzaldian zehar foru lege proiektu bat taxutzea, beren lan-kontratuen portzentaje bat egiteko NEZ erabili beharra ezar dadin enpresen onura fiskalen baldintza gisa».

Gero eta agerikoagoa da foru lege bat taxutu beharra dagoela, enpresentzako laguntza ekonomikoak eta onura fiskalak baldintzatuta egon daitezen kontratazioen portzentaje jakin bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez egitea.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean foru lege proiektu bat aurkez dezan, zeinaren bidez enpresentzako laguntza ekonomikoak eta onura fiskalak jasotzeko baldintza gisa jarriko baita kontratazioen portzentaje jakin bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez egitea.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du azken lan erreforma indargabetu dezan».

Iruñean, 2020ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da despopulazioaren aurkako eta landa garapena aldezteko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita despopulazioaren aurkako eta landa garapena aldezteko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita despopulazioaren aurkako eta

landa garapena aldezteko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

Despopulazioak landa eremuetako faktore, aldagai eta inguruabar guztiei eragiten die Nafarroan, maila ezberdinetan eragin ere, eta zailagoa egiten du jarduera ekonomikoak eta bizi-proiektuak garatzea; ezaugarri komuna da, berriz, populazio zaharkitua izatea.

Behar-beharrezkoa da gure erkidegoan landa garapena sustatzearen aldeko apustu irmoa egitea eta, hartara, oinarrizko gutxieneko zerbitzuak bermatzea biztanle horiei, egiazko aukera berdintasuna ahalbidetzea herritar horientzat, populazioa finkatzea eta jasangarritasun ekonomiko eta sozial egokia ahalbidetzea Nafarroako landa eremuetan. Horretarako, azpimarra jarri behar da gazteriaren arloko politketan, gizarte zerbitzuetan, komunikazio digitalean, azpiegiturretan, garapen jasangarrian, fiskalitatean, aukera berdintasunean, enpleguan eta abar.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean despopulazioaren aurkako eta landa garapena aldezteko foru lege proiektu bat aurkez dezan legebiltzar honetan.

Iruñean, 2020ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan Egaren adarrean Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzearen herrietan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu zezan Ega-

ren adarrean Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzearen herrietan, eta 2020ko otsailaren 21eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue 2021 Plan Globala prestatzeko eta antolatzeko egin beharreko jarduketak abiaraz ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Donejakue 2021 Plan Globala prestatzeko eta antolatzeko egin beharre-

ko jarduketak abiaraz zitzan, eta 2020ko ekainaren 12ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren osteko agertokian.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma zitzaizkien eta

horien jarduna erraz zezan pandemiaren osteko agertokian, eta 2020ko ekainaren 12ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea ABEN Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea

ABEN Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean, eta 2020ko uztailaren 3ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen bere iritzia eman zezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatu-

ko nafar ekoizleen interesak defenda zitzaizkion, eta 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak 2020ko irailaren 21ean egindako bilkura arruntean erabaki zuen Alzheimer eta bestelako demenziak dauzkaten pertsonen senitartekoen Nafarroako Elkartearekin bat egitea, Alzheimerren Mundu Eguna ospatzeko “Mendekotasuna legez kanpo” goiburuekin, zeren eta legearen barruan mendekotasuna ez baitago ongi babestua.

Nolanahi ere, aitortu behar dugu Autonomia pertsonalari eta mendekotasunerako arreta emateari buruzko 39/2006 Legea mugarri bat izan zela gizarte-eskubideen aurrerapenean, eta atea ireki ziola mendekotasun-egoeran zeuden pertsonen eta haien senide zaintzaileen beharrak aitortzeari.

COVID-19ak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoak eta kontzientzia sozial handiagoak une honetan erantzun “irmoa, iraunkorra eta gure gizartearen egungo eredura egokitua” eskatzen dute. Garai berriak, konplexuak eta aurrekari gabeak bizi ditugu, non COVID-19aren ondorioz sortutako pandemiak beste politika espezifiko batzuk bigarren mailan uztera behartu duen, hala nola gaixotasun neurodegeneratiboen pandemia eta, bereziki, Alzheimerra.

Horregatik, Nafarroako Parlamentuan aurreko urteko manifestuarekin bat egiten dugu berriz ere, eta konpromisoa hartzen dugu demenziak, oro har, eta Alzheimerra, bereziki, gizarte- eta osasun-lehentasuntzat har daitezzen. Eta maila politiko-administratibo guztietan indarrak batu beharrean gaude, pandemia hori geldiarazteko behar diren neurriak hartzeko.

Aurreikuspenen arabera, bizi-itxaropena igoko da –horrenbestez, Nafarroako populazioa ere zahartuko da (Espainiako batez bestekoaren gainetik zahartu ere)–. Hortaz, demenzia-motaren bat pairatzeko arrisku-faktore nagusia adina denez, AFANek honako hauek eskatzen ditu:

- Zahartze-prozesuak erraztera zuzendutako programak indartu eta optimizatzea.

- Kontzientzia hartzea epe labur eta ertainean geldiezia izanen dela adineko pertsonen kopuruaren gorakada; horregatik, oinarriak berehala jarri behar dira pertsonen gutxienezko duintasunarekin bizitzea ahalbidetuko dieten pentsioak bermatzeko.

- Baliabide espezializatuak eta egokiak aurrekustea demenziari arreta emateko, egungo eta etorkizuneko beharrezkoen aurre egiteari begira, bai hiri-eremuetan bai landa-eremuetan ere, non gaur egun babes apalagoa baitute.

Familia zaintzaileen egoerari eta dementzia dutenak zaintzen jarraitzen duen familia-ingurunean gertatzen ari diren aldaketei dagokienez, AFANek honako hau proposatzen du:

- Gogoeta-prozesu bat abiatzea familiak gaur egun duen –pandemian horixe demostratu da– eta etorkizun hurbilean izanen duen eginkizunari buruz. Gizarteari ohartaraztea bakardadea egiturazkoa bilakatzeko arriskua dagoela.

- Zaintzaile nagusiarri laguntza emateko mekanismoak sortzea, zeinen bidez eragotzi dementzia duen inor geratzea arretarik edo zainketarik gabe. Mekanismo horiek egungo familia-zainketaren osagarria izanen dira eta erraztuko dute beste zainketa mota bateranzko bidea (publikoa, pribatua edo mistoa) non protagonismo handiagoa egonen den, familia-egiturari ezinezkoa zaionean zaintzailearen rol tradizionala betetzea.

Bestetik, dementzia-mota desberdinei buruzko ezagutza zientifikoak aurrera egiten duen neurrian, AFANek ezinbestekotzat jotzen du honako hau:

- Dementzia mota bakoitzaren identitate propioa baloratu eta aitortzea, beharra duten pertsonen arretak, zerbitzuak, baliabideak eta zainketak ematearen arloko zein ikerketaren arloko espezializazio bati begira, agerian geratu baita horrexetan inbertitu beharra dagoela.

- Berariaz, protokolo, programa edo arretak ezartzea, “gaixo gazte” deitutakoei —65 urtetik beherakoei— berariaz zuzenduak, zeren eta egungo diagnostiko guztien % 9-10 baitira jada.

Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Artatzeko Legeari dagokionez, AFANek honako hau egin dadin eskatzen du:

- Dementzia duten pertsonen kasuan, autonomiaren kontzeptuari eskaini beharko litzaioke arreta. Gaur arte, ez zaie arretarik eman, zeren eta gaixotasunak jada bilakaera bat izan duenean egin izan baita hasierako balorazioa; hori dela eta, diagnostiko goiztiarra eman zaien eta oraindik ere beren gaitasunak hein handi batean mantentzen dituzten pertsonen kasuan, ez dira bultzatzen kalitatezko bizi-aldiak luzatzea bideratuko luketen prozesuak.

- Diagnostikoari lotuta, dementzia duten pertsonen desgaitasuna baloratzea bultzatu beharko litzateke.

- Berariazko mekanismo batzuk artikulatzea, gaixoa aztertzea ez ezik, zaintzaile nagusia aztertzea ere erdigunean jarriko luketenak.

- Gizarteak oro har eta Administrazioak bereziki aitortu behar dute zaintzaileak eginkizun ordainezina betetzen eta onartzen duela; izan ere, zaintzailerik ez balego gaixoak ez luke arretarik izanen; hortaz, Alzheimerrek eta, oro har, demenztziek ukitutako pertsonatzat ere hartu behar da zaintzailea. Hartara, bilatzen da binomioko bi osagaiak (gaixoa-zaintzailea) berdintzatzea, eta ez bereiz. Horretarako, elkarteak honako gogoeta hau egiten du:

- Zaintzailearen figura aldarrikatzea, arazoaren handitasuna bere testuinguruan egoki kokatzeko (Nafarroan Alzheimerra duten 5.449 pertsona daude, Osasunbideak erregistratutakoaren arabera, eta 21.796 izanen liriteke haien familiak ere kontuan hartuko balira). Horretarako, zaintzaileari lehentasunezko arreta eman beharko zaio babespolitiken eta babes-ekintzen bitartez. Horrek ez du inolaz ere esan nahi gaixoari zuzendutako arretari erne eutsi behar ez zaionik.

Ikusita dementziaren inguruan estigmak arazo garrantzitsua izaten jarraitzen duela —eta halaxe geratu da agerian COVID-19aren pandemian— AFANek uste du honako hauek interes handienekoak direla:

- Gizartea heztea, zentzurik zabalenean, dementzia dela-eta bizikidetzara aktiboa osatzeko, gizarte ez baztertzailerik sortuz.

- Kontzientziario, sentsibilizazio eta, batez ere, gaikuntzako berariazko planak diseinatzea gizarteko kolektibo jakin batzuentzat, plan horien bitartez zuzen jardun ahal izan dezaten egoera jakin batzuetan; honako hauetan, besteak beste: desorientazioa, galerak, jokabidearen nahasmenak, eta abar.

- Enpresekin lan egitea, lanpostuak egokitu diezazkieten (mantentzen dituzten gaitasunen arabera) lan egiteko adinean egon eta dementziak ukituta daudenei. Era berean, zaintzaileen egoera kontuan hartzea, familia eta lana bateragarri egiteari begira kolektibo horri zuzendutako neurriak ahalbidetuz.

- Ukitutako pertsonen eta haien zaintzaileen aldeko neurri fiskalak sortzea.

Dementziak oro har eta berariaz Alzheimerrek ukitutako pertsonentzako berariazko arreta da AFANen kezketako bat; hortaz, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Zainketari eta arretari heltzeko estrategietan eta moduetan berrikuntzak egitea, garaiekin bat, eta, batez ere, haiek zuzenduta dauden pertsonen beharrezanekin bat.

- Esku-hartzeak pertsonen profil berriei egokitzea, profilak denboraren joan-etorriarekin batera aldatu baitira.

- Berriazko erantzuna ematea gaixotasunaren estadio bakoitzeko eskakizun aldakorrei, bai zain-tzaileak, bai gaixoak berak eskatzen dituztenei.

Gizatalde honek dauzkan beharrak eta behar dituen berriazko zainketak direla eta, AFANek beharrezkotzat jotzen du Administrazioak indartu eta bultzatzea, modu progresiboan, oro har, demenzietarako beharrezkoa den arreta eta, berriaz, ukitutakoek eta haien familiek behar dutena. Aldi berean, hirugarren sektoreari laguntza emateko politikak aldarrikatzen ditugu, eta, zehazki, Alzheimerra eta bestelako demenziak dauzkaten pertsonen senitartekoen Nafarroako Elkarteari laguntza ematekoak. Elkarte horrek duela 30 urtetik osatzen du sektore publikoak egiten duen lana.

Alzheimerren gaixotasunaren izaera sozio-sanitarioak eta haren konponbideari buruzko etorkizun nahasgarriak ezinbestez eskatzen dute iker-

keta erabakitaz laguntzea: ikerketa biomediko, soziala eta sozio-sanitarioa. Horri dagokionez, AFANek honako hauek lehenesten ditu:

- Aurrekontuko zuzkidurak handitzea.

- Ikerketaren arloko entitate pribatuek eta zentro publikoek sustatutako sinergiaren koordinazioa eta ezarpena bultzatzea.

Denborak aldatzen doaz, pertsonak aldatzen doaz eta beharizanak aldatzen doaz. Hori dela eta, eta dokumentu honetan azaldutakoaren argitara, AFANek honako hau eskatzen du:

- Alzheimerren Estatu Politika baterantz joatea, demenziarekin konpromisoa duen eta solidoa den gizarte bat bilatuz, lanketa integralaren eta ingurune ez-baztertzaileren ikuspegitik.

- Azken batean, ahaleginak egitea politikak bilakaera bat izan dezan, demenziak eta hura pairatzen duten pertsonen izaten duten bilakaeraren parekoa". (10-20/DEC-00078).

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingo du astelehen honetan, irailak 21, 12:00etan, talde

parlamentarioek aurkeztutako Adierazpen Instituzionala irakurtzeko. Ekitaldian AFANek ere parte hartuko du.

3. Nafarroako Parlamentuak irailaren 21ean, astelehena, fatxada magenta kolorez argizatzea erabaki du." (10-20/DEC-00079).

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu beharrezkoa dela kode zibila eta zigor kodea aldatzea, animalien babesa hobetzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Zigor Kodea erreformatzeko beharra, animalien ankerkeria bereziko kasuetan zigorrak gogortzeko, bai eta Kode Zibila erreformatzea ere, animaliak gauzetatik bereizteko, Lisboako Tratatuan ezarritakoari jarraituz.

2. Animaliak babesteko esparru lege bat onartzeko beharra, Espainiako lurralde osoan aplikatzeko, konpainiako animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen espiritua jaso lezakeena.

3. Derrigorrezko eskola-curriculumeko elementu guztietan animalien babesa eta bizikidetzaren arduratsua diziplina arteko gai moduan jasotzeko eta lantzeko beharra.

4. Enplegatu publikoak prestatzeko beharra, animaliak babesteko politika publikoak kudeatu eta gauzatzeko, eta Lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea garatzeko araudia aplikatzeko.

5. Foru Komunitateko toki entitateek ahalik eta adostasun sozial eta politiko handienarekin onetsi behar dituzte animaliak babesteko ordenantza berriak, Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoetako arau-esparruetara eguneratuta.

6. Adierazpen instituzional hau bidaltzea Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Espainiako Gobernuako Animalien Ongizateko Zuzendaritza Nagusiari.” (10-20/DEC-00080).

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentua biktimen alde dago erabat, eta prostituzio-sistemaren aurka; sistema hori emakume eta haur kalteberen sufrimenduz eta esplotazioaz elikatzen da, eta haien eskubide guztiak urratzen ditu.

3. Nafarroako Parlamentuak emakumeak pobrezia feminizazioagatik eta gizonen eskaeragatik prostituituak izatera behartzen dituzten kausak desagertzearen alde borrokatuko duen

gizarte-eredu bat defendatzen du, eta kausa horiek desagerrarazteko eta ondorioei aurre egin ahal izateko jardun behar dugu. Emakume horien sexu-esplotazioa bateraezina da berdintasunaren, pertsonen duintasunaren errespetuaren eta emakumeen eta neskatoen giza eskubideen defentsaren gizarte-ereduarekin.

4. Nafarroako Parlamentuak prostituzioa abolitzeko eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren desagerrarazteko konpromisoa hartzen du, bai eta emakumeen eta neskatoen duintasuna defendatzeko eta emakumeak eta haurrak esplotatuz aberasten diren sareak eta mafiak amaiarazteko ere.

5. Nafarroako Parlamentuak estatuan prostituzio-sistema abolitzeko lege integral bat onestearen aldeko apustua egiten du.

6. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du krisi honetan ezinbesteko zerbitzuak ematen jarraitzen duten organizazioen eta kolektiboen lana: biktimak bilatzen eta justizia, osasungintza nahiz laguntza eta babes soziala izan dezaten laguntzen, eta abusu nahiz esplotazio egintza gehiago gerta dadin ekiditen.

7. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudun guztiei eskatu nahi die indartu egin dezaten

sexu-esplotaziorako gizakien salerosketa-delituak detektatzeko eta kontrolatzeko ahalmena; izan ere, adierazle nahiz azterlan guztiek erakusten dute pandemiak areagotu egin duela gizakien salerosketa, bereziki emakume eta neskatoena, zeinak, konfinatuta egotean, indarkeria handiagorearen arriskupean egon baitira". (10-20/DEC-00081).

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, musikaren sektorea suspertzeari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, musikaren sektorea suspertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zer neurri hartuko dira musikaren sektorea, zeina krisiak bereziki zigortu baitu, suspertzeko, eta nola aplikatuko dira neurri horiek?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, 1977ko Amnistia Legeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 1977ko Amnistia Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

1977ko Amnistia Legeak estatu-krimenak egin zituztenak blindatu zituela uste al duzu?

Lege hori amarru bihurtu zela uste al duzu? Hala baldin bada, zer zentzutan bihurtu zen amarru?

Iruñean, 2020ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, “Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa” Plangintza Mankomunitateari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, “Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa” Plangintza Mankomunitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2019ko uztailaren 17an, Gobernuak erabaki zuen “Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa plangintza orokorreko mankomunitatea eratzeko prozedura abiaraztea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 213.6 artikuluan ezarritakoarekin bat”. Urtebete baino gehiago igaro da erabaki hori onetsi zenetik, eta erabaki hori ez da oraindik ere ez ezertatu ez ukitutako toki entitateei jakinarazi ere.

Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordeak, 2019ko urriaren 2ko bilan, akordio bidez ebatzi zituen plangintza orokorreko mankomunitateen figura dela-eta sortutako

eskumen-gatazkak. Mankomunitate horiek Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legean aurreikusten dira (horren bidez, entitate horiek eratzeko eta funtzionatzeko modua arautzen duen 213. artikulua sartu zen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean), ulertuta figura horrek udalen mankomunitateena ez bezalako kategoria juridiko bati erantzuten diola, Nafarroaren eskubide historikoetan ainguratuta.

Hori dela-eta, honako galdera hauek aurkezten ditugu:

– Erabakia hartu eta urtebete baino gehiago igarota, Gobernuak ez die mankomunitatea osatuko duten toki entitateei oraindik jakinarazi 2019ko uztailaren 17ko erabakia, zeinaren bidez abiarazi baitzen Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa plangintza orokorreko mankomunitatea eratzeko prozedura. Zergatik?

– Gobernuak noiz onetsi nahi du plangintza orokorreko mankomunitatearen estatutuen proiektua?

– Edo, aitzitik, Gobernuak bestelako erabakirik hartuko al du 2019ko uztailaren 17ko erabaki hori ezeztatzeko edo aldatzeko?

– Gobernuak aurreikusita al dauka bere legegintza-egutegian Nafarroako hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legean aldaketarik egitea Hondakinen Erakundea dela-eta aurreikusitako gobernantzari dagokionez?

– Hala baldin bada, Gobernuak zer eduki eman nahi dio aldaketa horri?

Iruñean, 2020ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, musika eskola eta kontserbatorioetarako kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, musika eskola eta kontserbatorioetarako kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Musika ikasketak egiteko berariazko baldintzak behar direnez –eskola horietan abestu egin behar da, haize-instrumentuak jotzen dira, eta abar–, ikasleek COVID-19az kutsatzeko arrisku askoz ere handiagoa dute, ebidentzia zientifiko ugari egunero frogatzen duten moduan. Horrenbestez, haxe jakin nahi dugu:

1. Hezkuntza Departamentuak taxutu al du musika eskola eta kontserbatorioetarako kontingentzia plan berezirik? Hala baldin bada, erants bekio erantzun idatziari.

2. Helarazi al zaie Nafarroako udalen mendeko musika eskolei kontingentzia plan hori? Noiz? Zer udali? Erants bedi zerrenda xehakaturia.

3. Eperik ezarri al da udal eskolen kontingentzia plan hori Hezkuntza Departamentuari emateko, berrikus eta onets dadin?

4. Udalen musika eskolen zenbat kontingentzia plan jaso dira, 2020ko irailaren 14ra bitarte, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuan? Horien zerrenda xehakaturia, departamentuan zein egunetan sartu zen zehaztuta.

Iruñean, 2020ko irailaren 12an.

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Mina Muga proiektua leheneratzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

– Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka, behin alegazioetarako epea bukatuta, Mina Muga proiektua leheneratzeko planaren egoerari buruz?

– Nafarroako Gobernuak zer jarrera du proiektu hori dela-eta?

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, auzokideen erkidego-biltzarrak egiteko murrizketei edo haiek eteteari buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, auzokideen erkidego-biltzarrak egiteko murrizketei edo haiek eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan

Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Departamentuak pentsatuta al dauka auzokideen erkidego-biltzarrak murriztea edo etetea azken asteotan izandako COVID-19aren agerraldiak direla-eta?

Erkidego-biltzarrak egiteko berariazko araurik erabaki al da, Finka-administratzaileen Elkargoaren ordezkariarekin bat?

Zuzendaritza-organoen bilerak egiteko arau edo gomendiorik prestatu al du departamentuak, erkidegoen jabetzako espazio edo lokal komun erabilerari dagokionez?

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Moriako sutearen ostean Lesbosko errefuxiatuak hartzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Moriako sutearen ostean Lesbosko errefuxiatuak hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Europako beste herrialde batzuek ez bezala, Espainiako Gobernuak ez du bere burua eskaini Moriako sutearen ondoren Lesbosko errefuxiatuak hartzeko. Zer iritzi diozu?

2.- Zure ustez, bateragarriak al dira erabaki hori eta Europar immigrazio politika justu eta solidario bat sustatzeko helburu programatikoa?

Iruñean, 2020ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro

González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaien:

- 2019-2020 ikasturteko errepikatzailekopurua, hezkuntza-etapaz eta -mailaz sailkatuta, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, sareen arabera banatuta (publikoa eta itunpekoa) A eta G ereduetan.

- 2020-2021 ikasturteko errepikatzailekopurua, hezkuntza-etapaz eta -mailaz sailkatuta, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, sareen arabera banatuta (publikoa eta itunpekoa) A eta G ereduetan.

- 2019-2020 ikasturteko errepikatzailekopurua, hezkuntza-etapaz eta -mailaz sailkatuta, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzan eta Batxilergoan, sareen arabera banatuta (publikoa eta itunpekoa) B eta D ereduetan.

- 2020-2021 ikasturteko errepikatzailekopurua, hezkuntza-etapaz eta -mailaz sailkatuta, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzan eta Batxilergoan, sareen arabera banatuta (publikoa eta itunpekoa) B eta D ereduetan.

Iruñean, 2020ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak irailaren 9an iragarri zuen lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzea onetsi izana, "euskarazko beste horrenbeste lanpostu baliogabetu zituen epaia betez". Hezkuntza Departamentuak zioenez, "hartara, epaiak ukitutako 108 funtzionarioek beren lanpostua gorde ahal izanen dute".

Halaber, Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean irailaren 14an iragarri zuen 715 izanen direla 2020ko lan-eskaintza publikorako onetsiko diren lanpostuak, eta horietako 332 irakasleenak izanen direla. Remírez lehendakariordeak iragarri zuenez, gaztelaniazko 108 maisu/maistra lanpostu horiek 2020ko lan-eskaintza publikotik independenteak izanen dira, eta Espainiako Gobernuari berariaz eskatuko zaio deialdia ahalbidetu dezan.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Nafarroako Gobernuak zer oinarri juridiko darabil esateko "euskarazko beste horrenbeste lanpostu baliogabetu zituen epaia betez" eskainiko dituela gaztelaniazko 108 lanpostu? Nafarroako Gobernuak dio Administrazioa lanpostu horiek eskaintzera behartzen duela epaiak? Jarrera hori bermatzen duen txosten juridikoa jaso nahi dugu, baldin eta halakorik badago.

Nafarroako Gobernuak zer jarrera hartuko du baldin eta Estatuak ez badu onartzen 108 lanpostu horiek 2020ko lan-eskaintza publikoko 725 lanpostuetatik aparte eskaintzea? 2020ko berrezarpen-tasan sartuko lirateke eta 2021eko oposizioan eskainiko lirateke, AFAPNA sindikatuek exigitu duen moduan?

Iruñean, 2020ko irailaren 17an.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea, zeinaren 9.3 a) artikuluan xedatzen baita Kontseilu horretako bost kide Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela gehiengo osoz, Eledunen Batzarrarekin adosturik eta Erregelamenduaren 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arauen testua:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izateko bost pertsona hautatuko ditu Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste hautagai aurkeztu ahalko ditu talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak. Hautagaiak aipatu foru legean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautagaiak aurkezteko idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaiak adierazitako onarpena. Proposatutako hautagaiak aipatu foru legeko 14. artikuluan ezarritako bateraezintasunen batean erortzen ote diren zehazte aldera, proposamen-idazkiarekin batera akreditazio edo adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko baita ez direla bateraezintasunean erortzen.

4. Talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteak gizarte kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2020ko urriaren 1eko 17:30ean bukatuko da.

5. Hautagitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Gizarteko kontseiluko bost kideen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. Bozketa txartelen bidez egingen da, eta zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

Lehen bozketa bukatu eta gero emanen da eskuordetutako botoa. Hartara, talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzaren barruan, handienetik txikienera, botoa eskuordetu duten pertsonak banan-banan deituta bozkatuko da.

8. Mahaiak botoak zenbatu eta boto gehien lortu dituzten bost hautagaiak aldarrikatuko ditu. Hautagaiak Legebiltzarreko kideen gehiengo osoren aldeko botoa lortu behar dute gutxienez.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

10. Lehenbiziko bozketan bost postuak betetzen ez badira 8. arauan zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik, bozketak errepikatuko dira bete gabeko postuetarako. Bozketa hauetako txarteletan zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste hautagai sartu ahalko dira. Lehendakaritzak botazioak eten ahalko ditu zirkunstanziak horrela jokatzeko gomendatzen badute. Segidan suertatzen badira hiru botazio hautagai guztiak edo hautagaietako bat hautatu gabe, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta

prozesu berri bati emanen zaio hasiera bakarrik hautatu gabeko kideak hautatzeko.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
